


TXIKITTO

2010-05 • 112. zenbakia



Txikitto!

LH ETA DBHKO IPUIN LEHIAKETA XVI. IPURTERRE 2009

...eta kitto! Euskara Elkartek, Eibarko ikastetxeekin elkarlanean, Ipurterre Ipuin Lehiaketaren XVI. edizioa antolatu du. LH eta DBHko D eta B ereduko kasleek hartu dute parte eta, guztira, 1.043 ipuin jaso dira. Hurrengo orrialdeetan lehiaketan sarituak izan diren ipuinak irakurtzeko aukera izango duzue.

ibaizabal

aferbe elkar



erein



YRAOLAGOITIA

Mega

ARGITARATZAILEA: "...eta kitto!" Euskara Elkartea, Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar. Tel: 943 206776. ERREDAKZIO KONTSEILUA: Ekhi Belar, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak. ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte.

ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA: Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. ARGAZKIAK: "...eta kitto!" aldizkariako argazki artxiboa, Ekhi Belar eta Koldo Mitxelena. AZALEKO ARGAZKIA: Ekhi Belar. COPYRIGHT-A: Txikitto! LEGE-GORDAILUA: SS-1111/96



Eibarko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria




Elefante txiki bat

Orain dela urte asko elefante txiki bat bizi zen toki txiki batean eta deitzen zen Txikito. Bere ama eta bere aita sakabanatuta bizi ziren eta Txikitok eurekin batera bizitzea nahi zuen. Baina ama eta aita oso haserre zeuden. Orduan, Txikito beti bueltaka ibili behar zen beti etxe batetik bestera. Orduan, Txikitok bere ama eta aitari esan zien:

-Bizi elkarrekin! Eskatu barkamena eta bizi elkarrekin!

Eta denok oso ondo bizi ziren.



LH 1 zikloa (d eredua)

**June
Ibarloza Zelaia**

Txakur jokalaria

Bazen behin Beltza izeneko txakur bat. Horrela jarri zion izena bere jabeak azala oso iluna zuelako eta ile oso beltza. Ertaina eta oso alai zen, beti jolasean zebilen. Behin bere jabeak Ipuruako anexora eraman zuen, bera foballzale amorratua zelako eta bapatean foball-eskolako partidu bat ikusi nahi zuelako.

Beltza, jolastu nahian, zelaira sartu zen korrika eta saltoka baloiaren atetik; jokalar guztiek zelaitik ihes egin zuten beldurtuta. Atezainak ere bere lekua utzi zuen. Atea zaindari gabe geratu zen. Momentu horretan Beltza zelaiaren erdian zegoen baloiarekin. Baloia gelditu zuen eta ostikada bat eman zion, eta baloia zuzenean ate barruan sartu zen: GOOOOOL! Oihukatu zuen zelai guztiak.

Jendearen artean Eibarko entrenatzailea zegoen, harrituta. Presidenteari Beltza erostea nahi zuela esan zion bere talderako. Presidenteak barrezka jarri zen, hori ez zela posible esan zion. Federakuntzak ez zuela onartuko. Orduan,



jokalar bezala ezin zuenez erosi, mas-kota moduan erosi zuen. Horrela, Beltza entrenamendu guztietara joaten zen, parte hartzen zuen eta gero partiduetara ikusle moduan joaten zen.


Handik aurrera Eibarrek partidu guztiak irabazi zituen eta lehenengo mailara iritsi zen. Talde ospetsuenek, hau ikustean, Beltza erostea nahi zuten, baina Eibarrek ez zuen nahi saltzea. Bere jabea eibarzale amorratua zen eta Eibar taldean eman zituen Beltzak bere egunak.



LH 2 zikloa (b eredua)

**Ander
Arrillaga Sarasketa**

Sagu surferoa



Bazen behin sagu bat grisa zena. Begiak marroiak zeuzkan eta bere izena Xabi zen. Bere anaien artean txikiena zen, baina gogorrena ere bai. Txikitan ura asko gustatzen zitzaion. Udan, lasterketa antolatu zuten surf txapelketan. Azkenean Xabierrek irabazi zuen lasterketa eta zoriontsua izan zen kopa handi bat eman ziotelako. Kopa barruan diru asko jaso zuen eta golosina batzuk erosi ahal izan zituen. Kalabazin, kalabazan...



LH 1 zikloa (b eredua)



**Iker
Dávila Albisu**

Lara eta Poloan arazoa

Arazo hau orain dela 9 urte gertatu zen. Lara 16 urteko neska bat zen. Pinguinoak oso gustoko zituen eta oso ausarta zen. Ile luzea eta lisoa zuen eta begi urdinak. Nahiko altua eta argala zen.

Egun batean, Lara ordenagailuan ibiltzen zegoela pinguinoei buruzko web orrialde bat ikusi zuen eta hau esaten zuen: "Poloan jendeak pinguinoak hiltzen ditu beraien azalarekin larruzko berokiak egiteko". Lara harrituta geratu zen, baina ideia bat bururatu zitzaion: Gabonetako oporrak ailegatzeko aste bat falta zenez, oporretan hara joatea bururatu zitzaion.

Hurrengo astean polora joan zen eta Poloan

pingüino asko hilik zeuden. Lara, bere gurasoak eta bere anai handia Ibon pinguinoentzako babesleku bat egiten hasi ziren. Bukatzerakoan bizi-rik zeuden pinguino guztiak babeslekuan sartu zituzten. Lara eta bere familia egunero jaten ematen zieten pinguinoei, eta Iboni ideia bat bururatu zitzaion: pinguino hiltzaileei tranpa bat jartzea. Eta hori egin zuten. Pinguino hiltzaileak tranpan erori ziren eta polizia entregatu zizkieten.

Lara eta bere familia libre utzi zituzten pinguinoak eta handik aurrera pinguinoak oso-oso lasai ibili ziren Polotik.

Eta urtero Gabonetako oporretan Polora joaten dira Lara eta bere familia.



LH 2 zikloa (d eredua)



**Xenia
Ferreño Barbarrubio**



Itsasontzi bat dut etxean



Nire izena Gorka da eta 8 urte ditut, ia ia 9, eta itsasontzi bat daukat, beno, neukan etxean. Hau gertatu zen itsasontziarekin:

Eskolatik nentorrela zarata handia entzun nuen etxetik hurbil:

-Zer izango ote da? -pentsatu nuen.

Eta etxe ondoan oraindik gehiago entzuten zen! Etxera sartu nintzenean gure bainugelatik zeto-rra konturatu nintzen eta amari galdetu nion:

-Ama, zertan ari dira bainugelan horrenbeste zarata ateratzen?

-Zure aita bainu txiki hartan jausi egiten zenez, handiagoa ipintzen ari dira. Eta orain joan zaitetz kanpoan jolastera.

-Bai, ama.

Eta hori esanda parkera joan nintzen lagunekin jolastera.

Bidetik, etxetik ez oso urrun, furgoneta bat ikusi nuen nire etxera zihoala eta barruan itsasontzi bat zeraman, eta pentsatu nuen:

-Baina gure etxera ez zuten bainu bat ekarri behar?

Parkera iritsi nintzenean esan nien lagunei:

-Nire etxean bainugelan obrak egiten ari dira eta kriston zarata dago!

-Zer egin behar dute, bada?


-Bainuontzi berri eta handiagoa, baina nik uste dut itsasontzia dela.

-Ezinezkoa da hori!

-Ah, bai? Ba bihar etorri nire etxera, ikusiko duzu...

Hori esanda parketik etxeruntz joan nintzen be-larriak tapatuz, baina etxe ondoan ez zegoen za-ratarik!

Etxean sartu eta bainugelara joan nintzen, atea zabaldu eta, egia zen! Hori bai zela itsasontzia! Baina... masta, lema eta aingura falta ziren! Se-gituan makila bat, errotulkiak eta izara bat hartu



eta prest zegoen! Baina ni ez; beraz, sukaldeko la-piko bat eta makila bat hartuz sartu nintzen itsa-sontzian; prest zegoen!

Jolasten nengoela ama sartu zen eta zoroa nen-goela pentsatu zuen!

-Baina Gorka, zer egiten duzu? -esan zidan.

-Jolastu! -erantzun nion.

-Zer, zer jolas da hori?

-Benoa, itsasontzi bat edukita...

-Kanpora orain momentuan!

-Bai, ama.

Ez zen oso egun ona izan...

Hurrengo egunean eskolatik etorritakoan, nire etxera joan ginen jolastera lagunak eta neu, itsa-sontziarekin, noski. Eta hori bai izan zela iskan-bila! Amak ikusi eta kristoren errieta bota zigun eta hurrengo egunean bainua aldatuko zuela esan zidan!

Eta hori gertatu zen itsasontziarekin; dutxa txiki luzexka bat ipini zuten. Orain karreterako autoa daukat.



LH 3 zikloa (d eredua)



**Jokin
Arrizabalaga Baglietto**

Mikel asmatzailea

Orain dela urte bat, Mikelek, 20 urteko mutilak esaten zuen handitan asmatzailea izan nahi zuela. Lekeition bizi zen eta egunero unibertsitatera joaten zenean, egun osoan berdina pentsatzen egoten zen: "Handitan asmatzailea izan nahi dut".

Bost urte pasa ondoren, unibertsitatea amaitu zuen eta gauzak asmatzen hasi ziren. Urte asko asmatzen iraun ondoren, etxeko gauzak egiten zituen makina asmatu zuen eta erakustea erabaki zuen.



Erakustera heldu zenean, jende asko zegoela konturatu zen eta oso urduri jarri zen.

Hitzegiten hasi zenean, oso urduri zegoenez, dena gaizki atera zitzaion eta ez zioten lan horretarako onartu. Oso triste joan zen etxera eta, afaldu ondoren, ohera joan zen telebista ikusi gabe.

Hurrengo egunean, ohetik jaiki zenean, pentsatzen egon zen lan horretan onartzeko zer egin ahal izango zuen. Eta bapatean ideia berri bat eduki zuen: deitzea eta berriro jende aurrean hitzegitea, baina orain bera bakarrik balego bezala.

Erakusteko ordua heldu zenean ez zegoen hainbeste jende; orduan, oso ondo atera zitzaion. Amaitu zuenean agintariak esan zion deituko ziola eta oso pozik joan zen etxera. Egun bi pasa ondoren deitu egin zion eta hau da esan ziona: "Lan honetan onartuko zaitugu, bihar hasiko zara".

Poz-pozik hurrengo egunean lanera joan zen, dotore-dotore jantzita. Heldu zenean bere bulego eraman zioten. Egunero gauzak asmatzen egoten zen. Bere buruari esaten ziona zen: "Nere ametsa bete egin da".



LH 3 zikloa (b eredua)



**Lucia
Irigoien Gauzarain**

Faraoiaren pozima magikoa

Orain dela urte asko gertatu zitzaidan, baina gogoan daukat Egipton bizi izan nuen abentura hura, arriskugarria zenbait momentutan, ahaztezina bestetan.

Dena Londreseko Britainiar Museo ospetsuan hasi zen. Arkeologiako ikasketak amaitu berriak nituen eta papiroetan agertzen diren hieroglifikoei buruzko ikerketa lanetan jarraitzeko beka on bat lortu nuen, museoko artxiboen sakontze lanak egiteko.

Papiroak eta aintzinako zibilizazioetako dokumentuak eta manuskritoak segurtasun handiko giletan pilatuta zeuden eta, han sartzen nintzen bakoitzean, kultur munduan murgiltzen nintzen ingurukoa ahaztuz.

Urriaren goiz euritsu hartan, lanean hilabete neramala, oso gustora gainera, museoko zuzendaria agertu zen presa asko zeukan gizon dotore batekin. Biak giltzapean zegoen armairu baterantz abiatu ziren eta, zetaz estalita zegoen ebanoz egindako kutxa bat zabaldu ondoren, barruan zegoen urrezko tutu batetik papiro zahar bat atera zuten. Biek ordu erdi baino gehiago irakurtzeari eman zioten urduritasun handiz eta, halako batean, biak saltoka eta barrezka hasi ziren elkarri besarkada handi bat emanez eta papiroa musukatzen.

Lanean geundenok harrituta geratu ginen aurrean geneukan ikuskizunarekin eta nere ondoan zegoen neskak, Kate izenekoak, jakinminez galdetu zidan:

-Peter, zer gertatzen zaie tipo bi horiei? Ezagutzen al duzu tipo hori, edo zerbait dakizu berari buruz?

-Ez, Kate, ez daukat ideiarik ere, baina benetan ikusgarria da, ezta?

-Bai, hala da. Hala ere, zer irakurri dute paper sekretu horretan hain pozik jartzeko? -galdetu zidan Katek.

-Zerbait garrantzitsua izango da, baina lasai egon, gure zalantzak berehala argituko zaizkigu.

Hurrengo egunean zuzendariak deitu zigun bere bulegora joateko. Kate eta biok hara abiatu ginen oso urduri, baina gogo handiz zein izango




zen gure betebeharra jakiteko.

Zuzendariarekin bezperako gizona zegoen, John Murphy jauna, Ramses faraoiaren bizitzan

aditua, eta berak adierazi zigun papiroan zetorren aurkikuntza berezia.

-Gazte maiteak -hasi zitzaigun esaten-, urte eta



diru asko gastatu dut jakin arte informazio hau: Ramses hilobian, kutxa eder baten barruan, zilarrezko pote bat zegoen ondo itxita eta orain jakin izan dugu hor zegoela faraoiak erabiltzen zuen pozima magikoa indartsu eta gazteago mantentzeko eta, honekin batera, beharrezkoa zen formula. Hau dela eta -jarraitu zuen Mr. Murphyk-, nire proposamena da zuek El Kairon dagoen museora joan eta handik ekartzea altxor zoragarri hau.

-Oh! Hau ez genuen espero, baina, bai, prest gaude joateko -erantzun genuen biok batera gure artean berbarik gurutzatu gabe.

Bidaia luze baten ondoren eta, nola ez, gastu guztiak ordainduta, El Kairo hirian geunden Kate eta biok gure helburua betetzeko asmoz.

Hurrengo goizean Arkeologia Museoko zuzen-

dariarekin gelditu ginen gure pozimaz berba egiteko eta formulari zetozen osagai eta prozedurak ondo idatzita eramateko. Honek Mr. Murphyren partez gindoazela enteratu zenean baietza eman zigun, berari eskertu behar ziolako egin zituen ahaleginak Ramses faraoiak hilobian zeuzkan al-



txor guztiak museora eramateko eta mirestatuak izateko.

Kate eta biok pozik irten ginen handik gure helburua lortuta eta turismoa egiteko prest faraoiaren lurraldean.

Zoritarrez ez ginen konturatu museotik irten ginenetik egiptiar bi geneuzkala gure pausoak jarraitzen. Eguerdia zen, merkatu eguna eta, barrezka, parean geneukan bazarrean sartu ginen, jendetzaren artean nahastuta, kaleetako postuak eta dendak begiratu, salgai zeuden produktuak ukituz... baina bapatean kale estu eta ilun batera bultzatu gintuzten guk jakin gabe zer egin eta zergatik geunden hor.

Garrasika eta keinuen bidez errez adierazi zituzten ondo gordeta genuen enkargua beraiei eman behar geniola, eta zalantzarik ez izateko laban izugarriak atera zituzten txilaben barrualdetik.

Egoera oso larria zen. Ez geneukan irtenbiderik, baina beste aldetik ez genuen nahi beraien eskuetara pasatzea gure pozimaren formula.

Kate nire atzetik dardarka zegoen, ni bezala, baina era berean sutan eta ez zen isiltzen, oihukatuz laguntza eskatzeko. Izerdi hotza sentitu nuen nire gorputz osoan zehar, dena galduta ikusten nuen; gainera ez nuen ulertzen nortzuk ziren eta nola enteratu ziren gure sekretuak. Burutazio horietan nengoela, filmetan gertatzen diren bezala polizien txifloak entzun genituen gero eta hurbilago beraien uniformeak ikusi arte.

Lapurrak zurbil geratu ziren atxilotu zituztenean. Gu eskutik helduta lurrean eseri ginen bihotzaren taupadak bere erritmora bueltatu arte. Poliziak informatu zigunez, jeke arabiar bat zebilen pozima horren atzetik eta prest zegoen edozein gauza egiteko hori lortzeko.

Handik egun batzuetara Londresera bueltatu ginen dena kontatzeko eta Mr. Murphyri formula emateko.

Izan genuen abentura ahaztezina da eta Kate eta biok noizean behin gogoratu egiten dugu neguko arratsalde hotzetan tximiniaren aurrean.

DBH 1-2 (d eredua)



**Julen
Etxaniz Gil**

Aurrera eginez

Voudrevuil-en bizi zen hamabi urteko mutil beltzaran bat zen. Begiak, ilearen antzera, oso ilunak zituen, hondorik ez balute bezala, eta borobil-borobilak. Gainera, gorputz osoa zeharkatzen dituzten begirada horietako bat zuen, ikusi eta barruan zerbait somatzen duzun horietakoak. Txikia zen, ez auzoko argalena, baino bai baxuena. Hala eta guztiz ere, oso lagun onak zituen eta jendeak maite zuen, bere aitona herri hori aurrera eramanean zuen pertsona baitzen. Senideak diru asko egin zuen eta, hiltzerakoan, dena bere semearen izenean utzi zuen. Honek herritik alde egin zuen familia, emaztea eta hiru semeak bakar-bakarrak utzita. Hori orain dela urte bi eta zazpi hilabete gertatu zen. Etxea haientzat geratu zen, baina hura mantentzeko dirurik ez zeukatenez oso egoera txarra hartu zuen.


Kanpoko hormaren kolorea asko ilundu zen zinkinkeria zela-eta, teilatua erortzeaz dago, zulo askorekin eta, euria zegoenean, ura erraz sartzen zen barrura, batzuetan arratoiren bat ere aurkitzen zuten lurretik zehar, eta beste hainbat xehetasun eguneroko bizitzan gogorrak egiten zirenak. Gutxienez, inguruan eskola publiko bat zegoen eta horra joaten zen mutikoa astean hirutan. Bertara joan zen



bere anai nagusia eta gero, hogeita hiru urte zituelarik, hiri handira joan zen lan bila, dirua bere amari bidaltzeko eta bizitza erosoago bat izan ahal izateko. Eta, urte batzuk barrena, anai txikiaren txanda izango zen. Gure laguna ez zen ez oso ona ikasketetan, baina gogor saiatzen zen eta pixkanaka bere lan gogorraren fruituak ikusten hasia zen. Gainera, noizean behin umekeriaren bat egin arren, irakas-

leen artean mutil zintzoaren ospea zeukan. Bere bizitza normala zen, ez zuen arazo larririk izaten. Eskola astelehen, astearte eta asteazken goizetan izaten zen, eta bost orduz egoten ziren. Asteko beste goizetan pota-potoan aritzen ziren, igandean izan ezik, egun horretan jende guztia elizara joaten baitzen. Arratsaldeetan hondartzara joan ohi zen, han ez baitzuen euririk egiten. Askoz hobeto bizi zite-





keen, baina berak ez zuenez beste bizimodurik eza gutzen, pozik zegoen zeukanarekin eta ez zuen ezer faltan botatzen.

Egun batean, bere anaiak lanbidea galdu zuela eta ezin ziela diru gehiago bidali zioen berria jaso zuen. Ikaragarri haserretu zen eta eskolak ezertarako ez zuela balio pentsatzen hasi zen. Egunak pasatu ahala, bere amari eskolara ez zela joango esan zion, baina amak behartu egin zuen bazekielako berarentzat hoberena zela etorkizunean zerbait izan nahi bazuen. Hala ere, umeak piper egin zuen amari kasurik ez eginez. Ez zuen inork jakin behar; beraz, hurbil zegoen mendi batera joan zen, han inor ez zuela ikusiko pentsatuz. Bat-batean, dena mugitzen

hasi zela konturatu zen, inoiz ez zuen horrelakorik ikusi. Zuhaitzen hostoak ez ezik, zuhaitzak ere erortzen hasi ziren. Hegazti guztiak airean zehar abiatu ziren ahalik eta gehien urrunduz. Beldurtzen hasi zen, eta hoberena etxera bueltatzea zela pentsatu zuen. Baina buelta ematerakoan, bere herria lurrikararen ondorioz gesaltzen ari zela konturatu zen, bertan zeuden eraikin guztiak behera botaz. Belau-niko jarri zen eta negar egiteari ekin zion. Hiru orduz egongo zen horrela, polizia, suhiltzaileak, telekomunikazio sareak... heldu ziren arte. Inguruan bizirik gelditu zen bakarra zen. Errudun sentitzen zen eskolara joan ez zelako; horrela balitz, bere familia eta lagunekin egongo zen eta behin betiko

bakea izango zuen. Aste batzuk bitartean oso gaizki egon zen, zer egin ez zekiela. Azkenean, eskolara beti joango zela pentsatu zuen eta bizitzan zerbait izango zela erabaki, bere amak egindako esfortzu guztiek zerbaitetarako balio zezaten. Bazekien handik aurrera bere biziiza zeharo aldatuko zela.

Komunikabide guztietan atera zen eta haren irudia hondamendiari aurre egiteko laguntzak hartzeko balio izan zuen. Ikasteari ekin zion eta abokatu oso famatu bat izan zen, herrialde azpigaratuen alde borroka eginez. Mundu guztiak ezagutzen zuen bere istorioa eta hari garrantzia ematen hasi zitzaion. Bere izena Al' akir zen.

DBH 3-4 (d eredua)



**Iker
Lluvia Hermosilla**



SARI BANAKETA

Eguaztena ezin hobeto hasi zuten Eibarko hainbat ikastetxetako haur eta gazteek. Goizeko 10etan hasita, Ipurterre ipuin lehiaketaren sari banaketa ekitaldia hasi zen. Liburu, koaderno eta abarrak ikastetxean laga eta Hezkuntza Esparrurako bidea hartu zuten.

Zortzi irabazleendako sariak prest, urteroko moduan bestelako sorpresarik ere bazuen aurrikusita ...eta kitto! Euskara Elkartek: magia ikuskizuna.

Sun magoak behin baino gehiagotan behar izan zuen bertan batutakoen laguntasuna, baina, egia esan, la-



MAGIKOA

guntzaileak lortzeko arazorik ez zuen izan. Kartak desagertarazi, galtzerdiak uso bihurtu, paperarekin burukoa eta eskuko zorroa egin eta laguntzailleetako bat airean laga zuen. Ezin hobeto pasatu zuten zortzi irabazleen gelakideek Sun magoak egindako jo-koekin.

Eta tartean, zortzi irabazleek euren saria jaso zuten. ...eta kitto! Euskara Elkarteak, lerro hauen bitartez, esker ona adierazi nahi die laguntasuna eskaini duten Ibaizabal, Elkar eta Erein argitaletxeei eta Eibarko Ayerbe, Mega eta Yraolagoitia liburudendei.



Denborapasak

Bilatu hizki sopia Euskaltzainitzako futbol taldeen 5 izenak:

P	O	S	A	S	U	N	A
N	Z	I	S	E	L	M	I
L	N	L	Z	I	M	O	T
U	N	U	I	B	I	L	U
S	E	S	T	A	O	U	L
I	S	T	E	R	E	J	H
F	E	R	R	E	A	L	A
P	A	T	H	L	E	T	I

- Osasuna
- Eibar
- Athletic
- Getafe
- Real


Aitor Castro

Bilatu 5 desberdintasun:



Aitor Castro


- 1) Txuria
- 2) Gorria
- 3) Horia
- 4) Marroia
- 5) Berdea
- 6) Urdina
- 7) Aragia kalorea
- 8) Laranja



5

Paila eta bone 4ak

Nerea Etxebarria



1



- 1- urdina - 2 marroia - 3 marroia
- 4- arrosa - 5 horia - 6 marroia
- 7- berdea - 8 txuria - 9 gorria

MARGOTU KAMISETA!

*Berokiak eransteke
sasoia heldu da,
beraz, zure eskuekin
egindako kamiseta
bat estreinatu nahi?
Hurrengo pausoak
jarraituz kamiseta
ederra sortu
dezakezu!*

MATERIALA:

- Pintzel fina, ile finekoa.
- Kotoizko kamiseta zuria.
- Toalla.
- Karpeta edo kartoia.
- Urez betetako potea.
- Pintzelak.
- Kalkatzeko papera.
- Marrazki bat.

PAUSOAK:

- 1-Kartoia edo karpeta toallarekin estali ondoren, kamiseta barruan sartu ondo luzatuta, marrazterakoan ez zimurtzeko eta atzealdea ez zikintzeko. Kalko papera kamiseta gainean ipini aukeratutako marrazkiarekin eta kalkatu.
- 2-Arkatz batekin presioa egin marrazkia kamisetara pasatzeko.
- 3-Horria berdearekin perfilatzen hasi. Kontuz ibili tantanik ez erortzeko eta eskuak ez zikintzeko (kamiseta nahi gabe zikindu dezakezu ostean). Lorea

arrosaz eta barrukoa horiz margotu. Petaloak arrosa tonu leunago batekin margotu eta tximeleta margotzen hasi ondoren.

- 4-Tximeletaren gorputza eta hegoak margotu. Begia egin eta itzalak margotu.

- 5-Amaitzeko, bakoitzaren izenarekin apaindu daiteke kamiseta. Lan hau egiteko ez da denbora asko behar, eta oso dibertigarria eta erraza da gainera. Margoa lehortzean ez pentsatu gehiago eta irten kalera kamiseta berriarekin.



3



4



5



